

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

520 gaztek eta gazte-eragilek parte hartu dute 2014an Gazterientzako Ekintzen Nafarroako Eskolako ikastaroetan

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak 30.000 eurorekin finantzaturako 32 prestakuntza-ekintza egin dira

Miércoles, 07 de enero de 2015

520 gaztek eta gazte-eragilek (gazteria-teknikariak, aisialdiko begiraleak, gazte-informatzaileak...) parte hartu dute Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak, [Gazterientzako Ekintzen Nafarroako Eskolaren](#) bidez, iaz egindako 32 ikastaroetan.

Nafarroako Gobernuak 30.245 eurorekin finantzatu ditu prestakuntza-ekintza horiek, eta haiek hainbat gairi buruzkoak izan dira, esaterako: hezkuntza ez formala eta aisialdiko ekintzaren antolaketa; enpleguaren bilaketa, nutrizioa edo emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa. Beste zenbait honako hauen gainekoak izan dira: gutxiengo etnikoak, ekintza boluntarioa, gatazken bitartekotza, gazte-elkarteen kudeaketa eta elikagaien manipulazioa.

Ikastaro horien antolaketan lagundu dute, besteak beste: Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuak, Nafarroako aisialdiko eskolek, Altsasu, Aranguren, Burlata, Corella, Lizarra, Huarte, Iruña, Tuter, Eguesibar eta Atarrabiako udalek, bai eta Erriberri inguruko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak ere.

Gazterientzako Ekintzen Nafarroako Eskola Gazteriako Zuzendaritzaordetza Nagusiaren mende dago, 1999. urtean [sortu](#) zen eta, haren helburua formala ez den hezkuntza-arloan gazteak egoki presta daitezen da.

Haren funtzioen artean daude: gazte nahiz teknikari eta espezialistentzako ikastaroak antolatzea gazteria-arloan; gazteriaren beraren ekintzei lotutako titulazioen prestakuntza-programak egitea; tituluak eta diplomak ematea, edo aisialdiko eskolei aitortza ofiziala ematea.